




ZUZENDARITZAKO PROIEKTUA



Ander Nagore
2025

Aurkibidea

1. Proiektuaren aurkezpena	2
2. Eskola eta bere ingurunearen ezaugarrien deskribapena	3
2.1 Testuingurua.	3
2.2. Ikastetxearen datuak.	3
2.3. Langileak.	4
2.4. Zerbitzuak	5
2.5. Jarduerak.	5
2.6. Familiekiko harremana:	5
2.7. Ekipamendua eta instalazioak	6
2.8. Azken urteko datuak.	6
2.9. Hezkuntza proiektua	7
3. Ikastetxeko egungo errealitatearen analisia	8
4. Proiektua gidatuko duten printzipio pedagogikoak	14
5. Helburuak, adierazleak, helburuak, ekintzak eta denborak	15
5.1. Eraitza akademikoen hobekuntzaren lerro estrategikoa	15
5.2. Irakasleen koordinazio eta kalitatearen hobekuntzaren lerro estrategikoa	16
5.3. Inklusioaren hobekuntzaren lerro estrategikoa	16
5.4. Bizikidetzaren hobekuntzaren lerro estrategikoa	17
6. Ekintza planak eta haien denboralizazioa	18
7. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa	19
7.1. Proiektuaren jarraipena.	19
7.2. Proiektuaren ebaluazioa.	19

1. Proiektuaren aurkezpena

Biurdana BHIko eboluzioa eta oraingo egoera aztertuta, zuzendaritza-proiektu honetan gure institutuko hezkuntza-kalitatea eraldatu eta hobetzeko estrategiak proposatzen ditugu, gure ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen egungo beharrei erantzunez.

Azkenengo urteetako PISA (*Programme for International Student Assessment*) eta ESCS (*Economic, Social and Cultural Status*) ebaluaketen emaitzetan oinarrituta, agerian geratzen da ikaslegoaren jakintza eta gaitasunen maila txikiagotu egin dela. Hezkuntza-ingurune gero eta zorrotzago eta aldakorragoan bizi gara, eta giro horretan irakaskuntzaren maila akademikoa eta kalitatea hobetzeko estrategiak bilatzea ezinbestekoa dugu.

Garrantzitsua da ulertzea bigarren mailako zentroa izanik, lehenengo mailaren jarraipen bat bermatu behar dela, eta bertan jasotako oinarritzko ezagutzak nahitaezkoak izango direla DBHko erronkei aurre egiteko. Noski, Lehen Hezkuntzan haien ikaskuntza prozesua nahiko gidatua da, aldiz DBHn bilatuko duguna ikasleek ikaskuntza autonomoago bat lortzea izango da .

Era berean, Lehen Hezkuntzan oinarritzkoak diren gaitasun sozialak landu beharko dituzte, ondoren DBHn izango dituzten talde dinamikak eta etengabe aldatzen diren harreman zirkuluetan ongi moldatzeko. Gainera nerabezaroa hain konplexua den etapa izanda, Lehen Hezkuntzan emozionalki ondo prestatuak izatea laguntza handia izango da ikasleentzat.

Testuinguru horretan aurkezten dugun proiektuaren helburu nagusia ikaskuntza prozesuaren oztopo nagusiak identifikatzea eta horiek gainditzeko irtenbide praktiko batzuk proposatzea da. Zuzendaritzako lau urtetan ezinezkoa denez beharrezkoak diren hobekuntza guztiak egitea, proiektu honetan hainbat puntu jorratuko dira ahal den neurrian haietako batzuk aurrera eraman ahal izateko.

2. Eskola eta bere ingurunearen ezaugarrien deskribapena

2.1 Testuingurua.

Biurdana BHI Iruñeko D ereduko ikastetxea da. Bere kokalekua Biurdana kalea 3 da. Ondoko ikastetxeetako ikasleak jasotzen ditu: Patxi Larraintzar (Iruñea), Sanduzelai (Iruñea) eta Amaiur (Iruñea). Baita hurrengo institutuetatik etortzen direnak ere: Iparralde (Sanduzelai), Atakondoa (Irurtzun), Berriozar (Iruñea) eta Ibarberri (Lekunberri).

1988. urtean Hezkuntzak erabaki zuen euskarazko eredu bat batxilergorako sortzea egungo Ermitagañako “Navarro Villoslada” ikastetxean eta 1995. urtean, Navarro Villosladako ikasle euskaldunak ikastetxez aldatu ziren garai batean Fernando Remacha izena zuen Lehen Hezkuntzako eraikin batera, Biurdana Bigarren Hezkuntzako Institutua izena hartuz.

Biurdana Institutuko ikasleen gehiengoa jatorriz nafarra da eta ez du jatorri atzerritarrik. Horiek egotekotan, bikote mistoetatik eratorriak dira eta gazte ia denak txiki-txikitatik D ereduan eskolaratuak. Ikastetxeko familia gehienek tarteko maila ekonomikoa dutela esan daiteke, orokorrean ez dagoelako arazo ekonomiko handirik duen familiarik. Egoera ahulean dagoen ikaslegoaren ehunekoa %0.853koa da soilik (5 ikasle).

HLPBI indizeari dagokionez +1,19ko indizea daukagu Nafarroako eragin eremuari dagokionez. Iruñerriari dagokionez ordea +1,55eko indizea. Horrek adierazten duena da behar espezifikoak dituen ikasleak zentroan ditugula eta egokitzapen eta errekurtsio bereziak beharko ditugula haien garapen akademikoa eta emozionala bermatzeko.

2.2. Ikastetxearen datuak.

Gaur egun Biurdanak dituen hezkuntza etapak DBH eta batxilergoa dira eta osotara 586 ikasle ditu. Hauek hurrengo lerroetan antolatzen dira:

Maila		Ikasle kopurua	Talde kopurua
DBH: 312 ikasle	DBH1	56	2
	DBH2	55	2
	DBH3	89	4
	DBH4	112	5
Batxilergo: 274 ikasle	BATX1	152	5
	BATX2	122	4
Osotara		586	22

Biurdanan sortu zen masizifikazioa izan zela eta, Iparralde institutua egin zen. Hau martxan hasi zenetik Biurdanako DBH ikaslego kopurua murriztu egin da, baina aldiz Batxilergoko ikasle kopurua handitzen ari da eta datorren urteetan handiagoa izatea aurreikusten da.

Talde guztiak kontuan hartuta batz besteko ratioa 26,63koa da osotara zentroan. 24 ratioak DBHrako eta 30,44ko ratioak Batxilergorako. Geletan maila anitzeko ikasleak daude eta guztien beharretara iristeko irakaskuntza partekatua eta DUA erabiltzen dira.

2.3. Langileak.

Langileei dagokionez, osotara 74 irakasle ari dira momentuan jarduten, baina langileen bajak eta murrizketak direla eta, zenbaki hori aldatu daiteke. Langileen artean heren bat interinoak dira eta hori dela eta urtero nahiko errotatzen da irakaslegoa. Irakasle ez diren langileaen artean, bi bulegari, 4 atezain eta mantenimenduko pertsona bat dugu Donibaneko zentroarekin partekatuta. Horietaz gain 7 garbitzaile ere dauzkagu, arratsaldeetan lan egiten dutenak.

Institutoaren jardunaldia jarraia da, 8:15etan hasten dira klaseak eta 14:15etan

bukatzen dute DBHkoek eta 15:05etan Batxilergokoek.

2.4. Zerbitzuak

- Eskola garraioa 158 ikasle erabiltzen dute. Hori, Iparralde, Donibane eta Julio Caro Baroja-ko ikasleekin partekatzen da.
- Batxilergoko ikasleak antolatzen dira DBHko beharrezkoa duten ikasleei laguntzeko, klase partikularren bitartez.
- APYMAkoek tailer batzuk (sexu hezkuntza eta drogen prebentzioa, eta horietan sakontzen duten gurasoentzako hitzaldiak ere) finantziatzen dituzte.
- Ez dago jangela zerbitzurik.

2.5. Jarduerak.

Biurdana zentroak hainbat jarduera antolatzen ditu. Alde batetik, mintegi bakoitzak maila ezberdinetarako jarduera hezitzaileak antolatzen ditu kurtsoan zehar, hala nola, ateraldiak eta txarla instituzionalak unibertsitateko irakasleekin.

Bestetik, eskolaz kanpoko jarduerak ere antolatzen ditu, hala nola, aste txuria, aste berdea eta ikasbidaia. Azkenengo hauetan irakasle boluntarioen beharra dago beti ekintzak aurrera eraman ahal izateko.

2.6. Familiekiko harremana:

Familiekiko inplikazioa bermatzeko APYMArekin 3 bilera egiten dira urtero eta eskola kontseiluan familien ordezkariekin beste hiru. Horretaz gain, familiekin ate irekiak ezartzen dituzte ikasle berrientzat urtean behin DBH1 eta 1. batxilergoan sartuko diren ikasleentzat.

Kurtsoan zehar oso garrantzitsua denez ikasleen jarraipen egitea familiekin, kurtso hasieran bilera bat antolatzen da zentroaren inguruko eta horren funtzionamenduaren oinarritzko ezagutzak izan ditzaten. Ondoren tutoreen bilerak antolatzen dira familiekiko komunikazioa etengabea eta egokia izan dadin kurtsoa aurrera duen heinean.

Azkenik aipatu behar da APYMAk urtean zehar zentroan egindako ekitaldietan laguntza ekonomikoa ematen duela hauek aurrera atera ahal izateko eta nahiko

partehartzaileak direla.

2.7. Ekipamendua eta instalazioak

Biurdana ikastetxea hiru solairuko eraikin batek eta berdegunez inguratutako bi patio handik osatzen dute. Beheko solairuan bulegoak, gimnasioa, atezaintza, areto nagusia, musika gela, liburutegia eta 3 departamentu daude. Lehenengo solairuan, bi laborategi, informatika gela bat, bi tailer, bi plastika gela 5 departamentu eta ikasleen 14 gelak. Eta bukatzeko bigarren solairuan 12 Ikasgela eta beste bi departamentu daude. Klase guztiak ChromeBox batekin konektatuta dagoen monitore interaktiboekin eta arbelekin ekipatuta daude.

Eraikinak bi arazo nagusi ditu. Batetik ikasle kopuruari era egokian erantzuteko espazioa murrizta da. bestetik eraikina zaharra da eta presaka egindako bi zabalkuntza izan ditu, ondorioz, instalazioak etengabe hondatzen dira, eta euriteekin itoginak eta uholdeak agertzen dira. Baita ere pertsianak, atea eta sistema elektrikoa etengabe hondatzen ari da. Hori dela eta erreformak beharrezkoak dira.

Bukatzeko arazo handi bat dago itoginekin. Urtero euri zaparra handia egiten duenean ikasgelak urez betetzen zaizkigu. Horretaz gain zentroa ibaiaren alboan eraikita dago, eta horren maila asko handitzen denean ere uholdeak sortzen dira beheko solairuko gimnasioan eta hainbat aretotan.

2.8. Azken urteko datuak.

Egingo dugun analisisa, gure ikasleek Nafarroa mailan lortu dituzten emaitzetan oinarritzen dugu.

Azkenengo Ebaluazio Diagnostikoetan (ISEK indizeak kontuan hartuta) Gazteleran 520,4 atera beharretik soilik 507,3 atera genuela; Matematikan 523,6tik soilik 484; Ingelesan 516,9tik bakarrik 491; zientifikoan 514,2tik bakarrik 489,1 eta amaitzeko euskeran 506,9tik soilik 497,9. Ikusten den bezala indize guztien azpitik gaude zentro mailan, adierazten duena esparru akademikoan hobekuntzak behar direla.

Beste alde batetik Batxilergo emaitzei dagokionez, Biurdanako ikasleen espedientea 7,34-ko batazbestekoa dauka eta PAUn lortutakoa 7,169. Aldiz

Nafarroako mailarekin alderatzen badugu, gurea azpitik geratzen da, Nafarroako espedientearen batzbestekoa 7,66 eta PAUko batzbestekoa 7,41 izan delako.

Nahiz eta datu gehiago ez ipini, atal hau ez luzatzeagatik joera akademiko berdina izan dugu azkenengo hiru urteetan.

2.9. Hezkuntza proiektua

Helburua: Ikasleei hezkuntza integral bat eskeintzea da, horrekin garatzeko behar dituzten gaitasun akademiko, sozial eta emozionalak, egungo gizartearen erronkei aurre egiteko.

Ikuspegia: Nafarroako zentro eredugarria izan nahi dugu, ikasleen heziketa integrala eta exijentzia bilatuko duena. Gure helburuetako bat euskararen sustatzea eta horren galerari aurre egitea izango da. Horretan oinarrituz, ikasle kritikoak, konpetenteak eta gizartearen erronkak gaindituko dituzten ikasleak hezitu nahi ditugu, familien parte hartze aktiboa sustatzen dugun bitartean.

Balioak:

- a. Inklusioa eta ekitatea: Ikasle bakoitzak bere beharretara egokitua den hezkuntza jasotzea baliabideak beti ere hori bermatu dezaketenean.
- b. Errespetua eta dibertsitatea: Kultura eta genero identitate ezberdinekiko errespetua bultzatzea.
- c. Pedagogia tradizionalako hainbat elementu ikuspegi berritzaileekin integratzea hezkuntza-eredu aberasgarria eta eraginkorra sortzeko. Bi eruedetako onena konbinatzea ikasle guztien beharrei erantzungo dien ikaskuntza-giroa sortzeko. Klase magistralek oinarri sendoa eskaintzen dute funtsezko ezagutzetan, eta berritzaileek, berriz, sormena eta pentsamendu kritikoa. Ikasle guztiek ez dute modu berean ikasten, eta, beraz, metodoak konbinatuz gero, ikasle gehiago sar daitezke ikaskuntza prozesuan.
- d. Bilinguismo eta kultura: Euskararen garapena hizkuntza behikular bezala, kulturalk diren balioak sustatuz.

3. Ikastetxeko egungo errealitatearen analisia

Atal honetan ikastetxeak, gaur egun, bere eginkizuna aurrera eramateko dituen balizko aukerak eta zailtasunak aztertzen dira, baldintzatzen duten kanpoko eta barneko faktore nagusiak kontuan hartuta:

	AHULTASUNAK	INDARGUNEAK	MEHATXUAK	AUKERAK
EMAITZA AKADEMIKOAK	- Oinarrizko gaitasunak hobetzeko beharra (irakurmena, ulermena, matematikoa) maila guztietan. - Jarraipen individualizatua egiteko zailtasunak ratioen maila altua dela eta. - Porrot akademikoa ekiditeko errekurtsoren falta. - Maila akademiko baxua Nafarroako batzbestekoaren azpitik dagoena, bai DBHn eta baita Batxilergoan ere.	- Eraitza akademikoen hobekuntzarekin konprometuta dagoen klaustroa.	- Familia batzuen inplikazio txikia bere ikaslegoaren jarraipen akademikoan. - Kanpo distrakzioen handikuntza gehiegizkoa den mugikor eta gailu teknologikoen erabilerarengatik. - Hezkuntza komunitatetik jasandako presioa momentuko eraitza akademikoengatik.	- TIC harraminten erabilpena hezkuntza hobetzeko erreminta gisa.
IRAKASKUNTZA -IKASKUNTZA PROZESUA	- Klaustroari kostatzen zaio berrikuntza teknologikioetan aurrera egitea. - Aplikazio maila ezberdina metodologia berritzailatan departamentu eta irakasleen artean. - Irakaskuntza pertsonalizatzeko behar den errekurtsu eta denbora falta. - Irakasleen motibazioa eta interesa mantentzeko zailtasunak.	- Aniztasunaren trataera adaptazio Curricularrei esker. - Euskeraren integrazioa hezkuntza behikular bezala hezkuntza prozesu osoan. - TIC harraminten erabilpenaren hazkuntza erreminta pedagogiko gisa. - Gure zentruan dagoen irakasle aniztasunak aukera ematen du esperientzia onak zabaltzeko.	- Errubriken, proiektuen eta autoebaluazioaren inposizio nahia maila ikasgai guztietan, nahiz eta hauek ez diren beti lagungarriak irakasleen gaitasunen eskuratzeko.	- Beste zentroekin kolaboratzeko aukera.

	- Hezkuntza departamentuak eskeinitako formakuntzek askotan ez dute kontuan hartzen irakasleen aniztasuna eta irakasleen beharrak.			
IKASLEAK ETA FAMILIAK	- Familiak ez dira asko inplikatzeko zentroarekin, ezta honetan proposatzen diren ekintzekin. - Komunikazio arazoak daude familia batzuekin, gehien bat sozialki distantek diren eta errekurso falta duten horiekin. - Zailtasunak daude familia arazoak dituzten ikasleentzako egoera kudeatzeko.	- Orokorrean familia gehien maila sozioekonomikoa ona da eta horrek laguntzen du ikaslearen errendimenduan.	- Ekitatea arriskuan jartzen duen familia ezberdinen maila ekonomiko ezberdinak. - Familia batzuen desinteresa eta deskonexio bere seme-alaben hezkuntzarako. - Familia askoren denbora falta bere seme-alaben jarraipen egokia eramateko. - Konpondu ez diren arazo familiarak eta ikaslearen zuzenean eragiten diona.	- Amankomuneko baliabideak izatea, laguntza behar duten familientzako. - zentroak ikasleentzako integrazioa bukatzen du
LANGILEAK	- Irakasleak nahiko indibidualista da eta batzuetan kooperatzeko eta koordinatzeko zailtasunak ditu. - Derrigorrezko formakuntza ez dago beharrei egokitu, horrek denbora kentzen du irakasleentzako interesko formazioa egiteko - TIC erabileraren inguruan kontra dauden hainbat irakasle daude zentroan. - Irakasleak nabarmentzen dute gainkarga burokratikoaren oztopo bat dela bere hezkuntza lanean. - Irakaslearen artean arazo pertsonalak existitzen dira, zeintzuk oztopatzen duten gure arteko kolaborazioa.	- Klaustroa orokorrean konprometitu dago ikasleentzako hezkuntzarekin eta hori ahalik eta hobereena izateko egin behar den lanarekin. - Irakaslearen aniztasuna daukagu, espeialitate ezberdinetatik etorriak, bakoitzak ezagutza ezberdinekin, hezkuntza aberasten duena.	- Gainkarga burokratikoak sortu dezakeen irakaslearen desmotibazioa. - Langilearen estabilizazio falta eragin negatiboa dauka hezkuntzaren eta zentroaren inplikazioan. - Emaita akademiko konkretu batzuk lortzeagatik sortzen den kanpo presioa, zeinak estres giro bat sortu dezakeen.	- Kalitatezko formakuntzak jasotzeko aukera.

	- Irakaslegoaren gehiengoak ez dauka zentroarekiko inplikazio maila handia.			
HIZKUNTZAK	- Ikaslegoaren artean euskera hizkuntza maila desberdinak daude, oztopatzen duena okerragoa dutenen heziketa. - Orokorrean euskera maila ez da oso ona, bizi diren zonaldea erdalduna denez oso konplikatua da horiek egunerokoan erabiltzea. - Ingelesean eta frantsesean maila egokia lortzeko zailtasunak.	- Zentroak hezkuntza solido bat eskeintzen du euskeraz, ahalbidetzen duena ikaslegoa gaitasunak bai euskeran bai gaztelanian lortzea. - Hizkuntzetan espezializatuko irakaslegoa dago, errazten duena hizkuntzen irakaskuntza zentroan. - Hizkuntzen ikaskuntzarekin batera, horri estuki lotua dauden balio kulturalak ere eskuratzen dira.	- Ingurugiro erdaldunak etengabe mehatxatzen du euskeraren erabilpena. - Askotan errekurso eta erakundeen babes falta somatzen da euskara bultzatzeko.	- murgiltze linguistikoko programak izatea laguntzen du ingelese eta frantsesaren laguntzan.
ANTOLAKETA	- Mintegi askok ez dituzte fitxategi guztiak konpartitzen, eta egitekotan ez dira modu eraginkorrean egiten. - Irakasle askok formakuntza digital eskasa daukate beharrezkoa den antolaketa bat aurrera eramateko. - Departamentu ezberdinen arteko eta departamentu berdinetako mailen arteko komunikazio eskasa dago.	- Ordutegi argiak eta zehatzak daude ikasle eta irakasleentzat. - Dokumentazio instituzionala eskuragarri dago irakaslego osoarentzat, UPOaren barne.	- Errekurtso falta dago, eta irakasleek propio duten lankargaz aparte honetan denbora inbertitzeko gogoia izan behar dute.	- Aukera dago digitalki prestatzeko formakuntzetan sartzeko. - Aldaketa generazionala dela eta, gero eta gazte gehiago ditugu zentroan, antolaketa digitalean hobeto prestatuta daudenak.
BIZIKIDETZA	- Ikasleen artean bullying kasu puntualak daude - Neurri malaguegiak bizikidetzaren kontrako jarrentzat.	- Orokorrean ikaslegoaren eta irakaslegoaren bizikidetzak klima ona nabari da zentroan. - Bizikidetzak plan aktiboek laguntzen dute sortzen diren konfliktuak kudeatzen.	- Sare sozialak direla medio Cyberbullying-aren igoera. - Irakaslegoaren lan gainkargak denbora gutxi uzten dio bizikidetzak lantzeko behar duten ikasleekin.	- Hitz egiteko espazioen edukiera ikasleen beharrak eta kezak entzuteko. - Kexen buzoia, ikasleek haien kezak eta kexak transmititu dezaten.

		- Bizikidetzarako proiektuak hala nola saskibaloia proiektua, ikasleek ohitura onak har ditzaten.	- Gizartearen polarizazioaren hazkuntza.	
ESKOLA INKLUSIBOA	- Irakaslegoaren jakintza maila txikia behar espezifikoa dituzten ikasleen trataeran. - Errekurtso material falta efektiboa den inklusioa bermatzeko.	- Dibertsitateari arrreta eskeintzeko plana aktiboa dago, zeinak orientatzen duen hartu beharreko neurriak ikasleen behar espezifikoekin.	- Ikaslegoaren dibertsitatearen konplexutasun mailaren igoera. - Aldaketari aurre egiten dion irakaslegoa. - Irakaslegoareztat suposatzen duen lan gaitzera.	- Ikaskuntza pertsonalizatua errazten duten erreminta teknologikoen erabilera. - Hezkuntzan eman den sensibilizazioaren hazkuntza inklusibitatean.
DIGITALIZAZIOA	- Hainbat gailuk arazoak ematen dituzte zaharkituak daudelako edo jasan duten erabilpen kaxkarragatik. - Batzuetan teknologiarekiko menpekotasun handia daukagu. - Irakaslego parte baten sekulako desinteresa tresna digitaletan eta hauen erabiltzean irakaskuntza prozesurako.	- Infrastruktura digital egokia, internet eta chroombookekin. - Hezkuntza plataforma aktiboak Google Classroom, Drive edo Gmail bezalakoak, komunikazioa eta irakaskuntza errazten dutenak.	- Teknologiaren zaharkitze azkarra, zeinak ekipoak eta softwareak eguneratuta izatea zailtzen duen. - Kanpo baliabideekiko menpekotasuna zeinak ez dauden epe luzerako berrak. - Familia batzuen kultura digitalaren eskasia.	- Finantza publikoak eskeitzen dituen programak hezkuntza zentro teknologikoen eguneraketarako. - Ikaskuntza irakaskuntza errazten duten erreminta digitalei sarbidea.
PLANGINTZA ETA KUDEAKETA	- Irakaslegoaren parte hartze eskasa erabakiak hartzeko eta zentro mailan lagungarriak diren proposamenak planteatzeko.	- Zuzendaritza talde konprometitu ikastetxearen antolaketa eta kudeakerekiko. - UPOaren erabiltzea, helburuak eta funtzionamendua ongi zehazten duenak.	- Burokraziaren handikuntza kanpo araudi eta prozedurak direla eta. - Araudi aldaketa azkarrei egokitzeko zailtasuna. Araudi berri bakoitzak aldaketa sakona suposatzen du informazioa prozesatzeko denbora eman gabe. Gainera, terminologia aldaketa dakar, askotan eduki berdinentzat.	- Kadinet bezalako tresnei sarbidea izatea plangintza eta kudeaketa aurrera eramateko.

ESKOLA ORDUAN EKINTZAK	- Errekurtso ekonomiko falta, egin nahi diren hainbat ekintza aurrera eramatea ekiditzen dutenak. - Irakaslegoarentzako antolakuntza karga suposatzen dute. - Askotan horrelako jarduerak konplikatuak dira egutegian kokatzea, beste ikasgaien programazioetako epeei guztiz eragiten dietelako.	- Curriculumak aberasten dituzten ekintzen antolakuntzak, hala nola, irteera kultural, deportibo eta zientifikoak. - Irakaslegoaren inplikazioa hauek bultzatzen. - Orokorrean ikaslearen harrera ona horrelako ekintzetara, bultzatzen duena hauek gehiagotan egitea.	- Familien zailtasun ekonomikoak batzuetan ez dute bermatzen guztiak ekintzetan parte hartuko dutenik. - Batzuetan ikasleen jarrera txarrak irakaslegoaren motibazioa galtzea eragiten du.	- Batzutan laguntza eta dirulaguntza publikoetatik lagundu gaitezke. - Interdisziplinarrak diren proiektuak garatzeko balio dezakete.
ESKOLA ORDUTEGI KANPOKO EKINTZAK	- Eskolatik kanpoko eskeintza oso murriztua da. kanpaldiak eta bidaiak besterik ez. - Zailtasunak daude hauek parte hartzeko prest dagoen irakasleoa aurkitzeko. - Ekonomikoki nahiko exigenteak dira eta familia batzuk ezin dituzte ordaindu. - 2. Batxilergoan proiektu zientifikoak garatzeko aukera izatea, 1,5 puntuko ponderazioa izateko aukera galduz.	- Urtero ikasmaita bakoitzeko kanpaldi edo bidai bat antolatzen da ikasleekin. - Kohesio soziala eta zentrokoaren parte izatearen sentimendua handitzeko potentziala dute.	- Iraskalegoaren gero eta baldintza okerragoek arriskuan jartzen dute etorkizunean horrelako ekintzak bertan behera geratzea, inork parte nahi ez izateagatik.	
ZENTROARI BURUZKO GOGOBETETAS UNA	- Gehien bat 3. mailatik aurrera datozen ikasleen identifikatzea zentroarekin, bertan dauden denbora murriztatuz. - Konplikatuak da ikasleek zentroarekiko duten gertutasuna mantentzeko ekintzak antolatzea.	- Orokorrean gertutasuna erakusten duen klima somatzen da zentroan, bai irakasleen bai ikasleen partetik. - Ikasleekin urtero ekintza ezberdinak antolatzen dira data konkretuetan, zentroarekiko gogobetetasuna handitzen dutenak.	- Errekurtso falta eza ekintza desberdinen ekimena ziurtatzeko. - Irakasle kopuru handi baten interes falta gogobetetasuna indartzen duten ekintzak garatzeko.	- APYMAren laguntzak hainbat ekitaldi aurrera eramateko behar den laguntza ekonomikoa sustatzen dute. - Ikasleen bilerak eta debateak egiteko ematen zaien espazioak izatea.

		- Ikasle batzuen parte hartze aktiboa, bere binkuloa zentroarekiko handitzen dutenak.		
PROIEKTUAK	- Beste zentroek batxilergoan nota altxatzeko dituzten proiektu zientifikoen eza, espedientean 1,5 puntu gehitu dezakeena. - Proiektuak garatzeko ordu osagarriak behar dira. - Jarraipen falta proiektuetan urtetik urtera.	- Hainbat proiektu daude martxan, inklusioa eta hezkidetza barne parte hartzen dutenak.	- Denbora falta eskola orduetan, zeinak proiektuak txikiak izatera mugatzen duen.	- Teknologiaren laguntza proiektu berritzaileak garatzeko.
ESPAZIOAK	- Klase emateko gela falta somatzen da. Malabareak egin behar dira taldeak sartzeko eta desdobleak egiteko aukera gutxi. - Eraikinaren infrastrukturak nahiko zaharkituak daude eta arazo asko ematen dituzte, bai euriteekin eta bai uholdeekin. - Mantenimendurako langilea lehen baina ordu gutxiago ematen ditu gure ikastetxean Donibanekoekin partekatzen delako.	- Ia aktibitate gehienak garatzeko espazioak daude, ekipamendu minimo batekin. - - Konponketa eta berrikuntza lanak egiten doaz, erritmo apalean bada ere. - Mantenimendua nahiz eta ez den bat-batekoa orokorrean nahiko ongi dago eta espazioak zainduta mantentzen dira.	- Benetan arazo guztiak konpontzeko behar adina finantzaziorik ez egotea. - Infrastrukturen zahartze progresiboa berez zaharra den eraikin batean.	- Hezkuntzak urtero erreformaren bat egiteko dirua ematen du. Horrekin pixkanaka aurre egin ahal diogu eraikinaren egoerari.

4. Proiektua gidatuko duten printzipio pedagogikoak

Proiektua gidatuko duen printzipio pedagogiko nagusia ebidentzian oinarritutako hezkuntza izango da. Horretarako %100ean diren klase magistraletatik urundu nahi dugu hauek metodologia berritzaileekin oreka bat bilatu nahian.

Proiektu hau errealista eta praktikoa den erreminta bat bilakatu nahi da. Nahiz eta arlo batzuetan zeozer tradizionalagoa izan, efizienteak diren metodoen erabilpena sustatu nahi da, modernoagoak direnekin konbinatuz. Horrela, lehenengo alor bezala ratio txikiagoak lortzea eta hortaz indibidualizatuagoak diren klaseak sortzea bilatuko da.

Bestetik, Ikastetxea ikasleentzat gune segurua izateko neurriak zainduko dira, bereziki egoera ahulean daudenentzat. Ahalik eta baliabide gehiago eskeintzea ikasleen aniztasuna tratatzeko ezinbestekoa izan beharko da kalitatezko hezkuntza publiko bat eskeini nahi badugu. Dugun ikaslegoaren aniztasuna kontuan hartzen ez badugu zaila izango dugu haien garapen integrala bermatzea.

Azkenik, esperientziak eta materialak partekatzearen ohitura garatzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Zentro bezala irakaslegoa elkarri laguntzeko egon behar gara eta guztion artean elkarlanean aurrera egin. Horretarako sortzen ditugun tresnak eta materialak besteekin partekatzea ezinbestekoa izango da zentroaren bikaintasuna lortzeko.

5. Helburuak, adierazleak, helburuak, ekintzak eta denborak

5.1. Eraitza akademikoen hobekuntzaren lerro estrategikoa

Helburuak	Adierazleak	Jomugak	Hobekuntza ekintzak	2025	2026	2027	2028
				0	0	0	0
				2	2	2	2
				5	6	7	8
				-	-	-	-
				2	2	2	2
				6	7	8	9
1. Proba diagnostikoetan lortzen diren emaitzak ISEK indizearekiko gertuago egotea.	Proba diagnostikoen emaitzak.	Proba diagnostikoetan lortutako puntuazioa ISEK indizea baino 10 puntu baxuagoa izatea gutxienez.	Hezkuntza garapenean behikularrak diren Euskara ikasgaian eta logika abstraktoa jorratzen dituen Matematika ikasgaian familia kideekin laguntza kolaboratiboa sortu. Horren bitartez ikasgai hauetan ikaskuntza partekatua aurrera eraman ahalko da, klaseen efizientzia handituz, eta kasleen garapen integrala bermatuz.				x
2. Ikasleek ikasketa teknika zuzenak ezagutzea eta menperatzea.	Ikasketa teknikan formakuntza jasotzen duten 1. eta 2. DBHko ikasleen ehunekoa.	1. eta 2. DBHko ikasleen %50.	Kurtsoan zehar 3 tutoretza saioetan erakutsiko zaizkie ikasketa teknika ezberdinak, sinpleenetatik konplexuenetara. Gainera, dokumentu bat helaraziko zaie bideo estekekin hauek etxean birpasatu ahal izateko, bai ikasleei bai gurasoei ere.	x			
3. Ikasleek eraitza akademikoa altxatzeko aukera izatea.	Batxilergoan proiektuetan sartzen diren ikasle kopurua.	10 ikasle.	Batxilergoko ikasleei eskeinitako Unibertsitateko adituekin proiektu bat garatzea taldeka, zeinak beren nota akademikoa 1,5 puntu altxa dezakeen.	x			
4. Ikasleek ikaskuntza indibidualizatu bat edukitzea.	Ordu osagarriekin egiten diren talde kopuru berria.	1 talde.	Ordu osagarriak inbertituko dira talde kopuru gehiago ateratzeko eta ikasleen gela ratioak jaisteko. Modu horretan ikaslearekiko atentzio indibidualizatuago bat eukiko dugu zeinetan ikasleek lan karga txikiagotuta ikasle eta familiei denbora gehiago eskeini ahalko dieten.	x			

5. Hezkuntza prozesuan ikasleen beharrak detektatzea.	Sortzen diren feedback txostenak.	Ikasgai eta ikasle bakoitzeko txosten bat.	Ikasleen hezkuntzako prozesuan beharrak detektatzeko eta hoiien gainean azkar erantzuteko, feedback txosten batzuk sortuko dira, irakasgai eta ikasle bakoitzeko. Modu horretan ikasleek anonimoki nahi izatekotan ikasgaiekiko dituzten hobekuntzak proposatuko ahalko dituzte bere heziketa maila hobetzeko.			x	
---	-----------------------------------	--	--	--	--	---	--

5.2. Irakasleen koordinazio eta kalitatearen hobekuntzaren lerro estrategikoa

Helburuak	Adierazleak	Jomugak	Hobekuntza ekintzak	2025	2026	2027	2028
				0	0	0	0
				2	2	2	2
				5	6	7	8
				-	-	-	-
				2	2	2	2
				6	7	8	9
6. Irakasleek behar duten informazioa eta materialak ordenatuta izatea.	Departamentuko karpeta sortuta duten departamentu kopuruaren ehunekoa.	%80	Kalitatean sartuta eta informazioa kudeatzeko kadinet erremintari esker, departamentu guztietan materialak konpartitu eta igo egingo dira, edozein pertsona eskuragai izan dezan.				x
7. Irakasleen IA tresnen adimen maila handitzea.	IA inguruan egiten diren formakuntzak	IA inguruan formakuntza bat egitea.	Gaur egungo garapen teknologikoarekin ezinbestekoa da IAK ongi erabiltzen ikastea. Etorkizunean gure lana errezteko tresna ezinbestekoa bezala hartu eta landu behar dugu.	x			

5.3. Inklusioaren hobekuntzaren lerro estrategikoa

Helburuak	Adierazleak	Jomugak	Hobekuntza ekintzak	2025 -26	2026 -27	2027 -28	2028 -29
8. Irakasleen materialek aniztasuna kontuan hartzen dutela bermatzea.	Ikasgai eta ikaskuntza egoera bakoitzeko DUA printipioak jarraitzen dituen material kopurua.	Ikaskuntza egoera bakoitzeko material bat.	Irakasleei azalduko zaie ekitatea eta inklusioa bermatzeko minimoak diren ekintzak, eta eskatuko zaie horrelako material bat prestatzea.			x	

5.4. Bizikidetzaren hobekuntzaren lerro estrategikoa

Helburuak	Adierazleak	Jomugak	Hobekuntza ekintzak	2 0 2 5 - 2 6	2 0 2 6 - 2 7	2 2 2 7 - 2 8	2 2 2 8 - 2 9
9. Kurtsoan zehar ekitaldiak garatzea ikasleek zentro sentimendua garatzeko.	Kurtsoan zehar egiten diren ekitaldi kopurua.	Gutxienez hiru ekitaldi egitea kurtso osoan zehar.	Ekitaldien garapenerako jai batzordea sortuko da, zeinak ardura izango duen ekitaldi hauen garapenaz eta horien prestaketa egokiaz.	x			
10. Gizon emakume harreman zuzenak babesten dituen guneguri seguru bat sortzea.	Sortzen diren guneguri seguru kopurua.	Patio orduko guneguri seguru bat sortzea.	Aukera emango da ikasleek, guneguri seguru batean parte hartu dezaten. Horretarako gela bat utziko zaie patio garaian, eta bertan hitz egin ahaliko dute libreki. zentroan Ikusten dituzten hezkidetzaren kontrako jarrerak salatu ahaliko dituzte eta proposamenak egin erlazio osasunrsuak sortzeko mutil eta nesken artean.		x		

6. Ekintza planak eta haien denboralizazioa

Helburua	Ekintza	Beharrezko baliabideak	Arduraduna	Hasiera	Iraupena
1.	Ikaskuntza partekatua matematika eta euskara ikasgaietan familia boluntarioen laguntzaz.	Irakasleak, Ikaskuntza partekatua prestatzeko orduak, familia kide boluntarioak.	1. DBH eta 2. DBHko Eusk eta Mate irakasleak.	Iraila.	Kurtso osoa.
2.	3 tutoretza saioetan ikasketa teknikak erakutsiko zaizkie 1 eta 2 DBHn.	Hiru tutoretza saio, youtubeko bideoak, familien partehartzea.	Tutoreak	Iraila.	3 saio.
3.	Batxilergoko ikasleei eskeiniko zaie Unibertsitateko adituekin proiektu bat garatzea.	Unibertsitateko irakaslea eta bolondresa den irakaslegoa. Arratsaldetan ikastetxeko espazioa eta unibertsitateko proiektua.	Irakasle arduradun bat.	Iraila.	Kurtso osoa.
4.	Ordu osagarriekin osatzen diren talde kopurua handitzea.	Ordu osagarriak.	Zuzendaria.	Iraila.	Kurtso osoa.
5.	Feedback txostenen sortzea eta erabiltzea, ikaskuntza prozesua hobetzeko datuak jasotzeko.	Google Forms aplikazioa.	Irakasleak.	Abendua eta Maiatza.	Egun bat.
6.	Kadinet erremintaren bitartez departamentuko artxiboak modu antolatuan partekatzea.	KADINET erreminta eta Google Drive.	Departamentu buruak.	Urria.	Kurtso osoa.
7.	IA inguruan formakuntza egitea.	Nafarroako hezkuntza departamentuak eskeintzen duen formakuntza aukera.	Zuzendari ordea.	Azaroa.	Hilabete bat.
8.	DUA jarraitzen duen ikaskuntza egoera bakoitzeko material bat prestatzea.	Google Slides, Google docs edo Canva.	Departamentu buruak.	Urria.	Kurtso osoa.
9.	Zentro sentimendua garatzen laguntzen duten ekitaldeak prestatzea.	APYMAko diru laguntzak, eskolako soinu ekipoa, ikasle boluntarioak, irakasleak, musika instrumentuak, jolasak prestatzeko materialak.	Zuzendari ordea.	Iraila.	Kurtso osoa.
10.	Gune segurua sortzea	Ikastetxeko areto edo gela bat eta hori kudeatuko duen irakaslea.	Zuzendari ordea.	Urria.	Kurtso osoa.

7. Proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa

7.1. Proiektuaren jarraipena.

Proiektuaren jarraipena egiteko hurrengo metodologiak erabiliko dira:

- Hiruhileko bilerak zuzendariza eta ekintzen arduradunen artean aurrerapenak eta zailtasunak ebaluatzeko.
- Indikatzailen berrikusketa hilabetetan zehar jakiteko helburuak betetzen ari direla.
- Adostu diren ekintzen gaineko momentuko azketerketa.

Aurrekoak hurrengo erreminten bitartez kudeatuko dira:

- Plataforma digitalen bitartez hala nola Google Drive edo Googleen kalkulu orriak.
- Jarraipen plantillak: UPOa eta memoriak.
- Behaketa zuzena.

7.2. Proiektuaren ebaluazioa.

Ziurtatzeko proiektuak helburuak betetzen dituela hurrengo ebaluazio metodoak erabiliko dira:

- Indikatzailetan ezarri diren jomugen lorpena.
- Proiektua ildo onetik doala aztertzeko, irakaslego eta familiei inkestak bidaltzea.
- Ikuskaritzaren ikastetxeen jardunaren autoebaluazioa zuzendaritzaren bigarren urtean.